

**ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA
BERRIKUNTZARAKO EUSKAL
KONTSEILUAREN
AKTA**

**LEHENDAKARITZA,
2017KO ABENDUAREN 19A**

BERTARATU DIRENAK:

Iñigo Urkullu jauna

LEHENDAKARIA

Arantza Tapiá andrea

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILBURUA

Iñaki Arriola jauna

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZAKO SAILBURUA

Pedro Azpiazu jauna

OGASUN ETA EKONOMIAKO SAILBURUA

Cristina Uriarte andrea

HEZKUNTZAKO SAILBURUA

Jon Darpon jauna

OSASUNEN SAILBURUA

Unai Rementería jauna

BIZKAIKO AHALDUN NAGUSIA

Markel Olano jauna

GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIA

Ramiro Gonzalez jauna

ARABAKO DIPUTATU NAGUSIA

Nekane Balluerka andrea

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

Bixente Atxa jauna

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

Jose M^a Gibert jauna

DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

Fernando Cossío jauna

IKERBASQUE-KO PRESIDENTEA

Manuel Salaverria jauna

INNOBASQUE-KO PRESIDENTEA

Iñaki San Sebastian jauna (Emiliano Lopez Atxurra jaunaren ordezkari)

TECNALIA-ko ZUZENDARI NAGUSIA

Antxon Lopez Usoz jauna

IK4-ko PRESIDENTEA

Jesús M^a Ugalde jauna

JAKIUNDE-ko PRESIDENTEA

Iñigo Ucin jauna

MONDRAGON KORPORAZIOAREN PRESIDENTEA

Francisco Riberas jauna
GESTAMP-eko PRESIDENTEA

Jesús Peña jauna
LEHENDAKARITZAREN IDAZKARI NAGUSIA

EZ BERTARATZEKO ARRAZOIA AZALDU DUTENAK

Rosa María Garcia andrea
SIEMENS-GAMESA RENEWABLE ENERGY-ko PRESIDENTEA

Jorge Unda jauna
SENER-eko ZUZENDARI NAGUSIA

0. Ongietorria eta hasierako agurra.

Lehendakariak bertaratutakoak agurtu ditu, eta ongiatorria eman die Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluan sartu behar diren pertsoneri. Antxon Lopez Usoz jauna agurtu du, IK4-ko ordezkari berria den aldetik, eta Manuel Salaverria jauna, Innobasque-ko ordezkari berria den aldetik. Bide batez, Kontseilu osoaren izenean eskerrak eman ditu Iñaki Aranburu jaunak eta Alberto Garcia Erauzkin jaunak egindako lan eta ekarpenengatik.

1. Aurreko akta irakurtzea eta onestea.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluak iragan 2017ko ekainaren 28an egindako azken bileraren akta onetsi da.

2. Bileraren nondik norakoak aurkeztea

Lehendakariak bileraren eguneko gai-zerrenda aurkeztu du, gainera. Adierazi duenez, 4. puntuaren ostean eta bilera amaitu ostean galderen txanda egongo da, bilera arinago egin ahal izateko.

Aurkezpen hori egindakoan, hitza Jesús Peñari eman dio, hark 2017an ZTBP ezartzeko prozesuaren laburpena azal dezan.

3. ZTBP 2020 ezartzeko prozesuaren 2017ko laburpena

Jesús Peñak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako ordezkaria den aldetik, 2017an egindako jardueren laburpena aurkeztu du. Kontseiluak planteatutako 6 erronken inguruan antolatu diren jardura horiek Lehendakaritzak kudeatzen duen Berrikuntza Funtzaren finantzaketa izan dute.

Jardura hauek nabarmendu ditu: 1) 18 elkarlaneko proiektu eragile berri identifikatzea eta ETE-ei transferitzeko eta zabaltzeko 17 jardunaldi antolatzea, pilotaje taldeen bultzadarekin; 2) Laguntza ematea enpresen 35 proiektu eragileri eta zeharkako 8 ekimen estrategikori; 3) Laguntza ematea merkatutik hurbilen dagoen I+G+b-ri, horren barnean LHko zentroekin garapen esperimental eta prototipatuko proiektuetarako programa pilotua dagoela; 4) Sistema zientifikoan eta unibertsitate-sisteman bikaintasuneko ikerketa bultzatzea, eta horrekin batera Erronka programa pilotu berria, enprekin elkarlanean proiektuak sortzeko; 5) Talentu zientifiko gaztea erakartzea xede duen Ikerbasque finantzaketa % 50 gehitzea, eta horrez gain hezkuntza-sisteman bokazio zientifiko eta teknologikoei pizgarria emateko proiektu pilotu bat (STEM), eta ingeniariak, zientzia eta teknologiko unibertsitate-prestakuntzako 4Gune kluster berria abian jartzea. Azkenik, eta 6. erronkari erantzuteko, adierazi duenez, 'Basque Innovation', gure etorkizunaren giltza leloa zuen komunikazio eta sentsibilizazio kanpaina bat atera zen. Halaber, proiektu garrantzitsuen zabalkunderako 10 fitxa egin dira, gizarte-berrikuntzako 13 proiektu hautatu dira eta 3.000 euskal enpresari baino gehiagori aurrez aurreko inkesta egin zaie, teknologikoa ez den berrikuntza indartzeko.

4. RIS 3 Pilotaje Taldeen hedapena eta ekimen estrategikoen aurrerabidea.

Arantza Tapia: Fabrikazio aurreratua, Energia, Elikadura.

Hitza hartu du Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuak, Arantza Tapiak, eta Fabrikazio Aurreratuko, Energiako eta Elikadurako pilotaje taldeen aurrerapausoak aurkeztu ditu.

A) Fabrikazio aurreratua:

Sailburuak azaldu duenez, Fabrikazio aurreratuko pilotaje taldeak bere gobernantza-eredua birdefinitu du, zuzendaritza betearazlea ezarri du eta industriaren, zientzia eta teknologiaren eta erakundeen arloan erreferentziakoak diren pertsonak dauzka. Batzorde betearazlearen gogoetaren emaitza gisa, hiru zutabe estrategiko ardatz hartzea erabaki da: 1) Basque Digital Innovation Hub, 2) Enplegurako prestakuntza eta 3) Negozio-eredu berriak.

Basque Digital Innovation Hub (BDIH) izeneko konexiorako gunea da. Euskal industria-sareari Fabrikazio Aurreratuaren arloan azpiegitura eta gaitasun zientifiko-teknologikoak modu erraz eta eraginkorrean eskuratzeko modua ematen dio. Aurten egindako lanaren emaitza gisa, BDIHk 2018an aktiboen katalogoa izango du, baita 2 nodo tematiko ere, probaldian funtzionatzen, bata fabrikazio gehigarrian eta bestea elkarlaneko robotika malguan. 2018an beste nodo batzuk sartuko dira apurka material berrietan, makina adimentsu eta konektatuetan eta abarretan.

Enplegurako prestakuntzaren esparruan, ikuspegi integrala duten jarduerak egiten ari dira 4 esparrutan: LH, Unibertsitatea, etengabeko prestakuntza eta STEAM bigarren hezkuntzan; horrez gain, prestakuntza enplegarritasunera bideratuko duen dinamika bat abian jarri da.

Halaber, abian jarriko da hirugarren zutabe estrategikoa, negozio-eredu berriei buruzkoa. Nazioartekotzeari dagokionez, 2018an euskal fabrikazio aurreratuak berriro parte hartuko du Hannover Messe azokan, arlo horretan mundu osoaren erreferentzia den ekitaldi batean.

B) Energia

Sailburuak EnergiBasque strategiaren hedapenari buruzko datuak eman ditu. Euskal enpresen I+G+b-ko programetan parte hartzeari dagokionez, 63 milioi ekarri ditu H2020ko Europako proiektutan, eta ia-ia 50 milioi 2016ko eskualdeko deialdietan (Hazitek eta Elkartek).

Zeharkako jarduketan artean nabarmentzekoa da Prestakuntzaren eta Giza Baliabideen arloko jardura. Hori eskatzen dute gehienbat enpresek, eta garapen teknologikoan eragina izan dezake. Pilotaje taldeak ekimen horietako batzuetan lagundu du, euskal unibertsitateekin eta beste eragile batzuekin. Nabarmendu ditu, halaber, Vanguard Sarean nazioartean posizioa hartzeko egindako jarduerak; horren barruan esperientzia pilotu batean eta bi lantaldetan buru aritu da beste hainbatekin batera "S3PEnergy" plataforman. Nabarmendu du Lehendakariari gonbidapena luzatu zitzaiola plataforma horrek datorren urtarrilaren 25erako Bruselan antolatutako ekitaldi batean, zeinean Europako Komisario batzuek parte hartu behar baitzuten, txostengile nagusi gisa parte hartzeko, eta horrez gain, Bilbo hautatu zela 2019an WindEurope Azoka egiteko.

Jarraian, 2017an egindako aurrerabideak azaldu ditu. Hain zuzen ere Windbox ekimen estrategikoetan (2 banku osatu dira eta funtzionatzen ari dira eta 2 eraikitzen ari dira, eta, gainera, enpresek proiektua handitzeko proposatu da), eta Smart Grids izenekoetan izan dira aurrerabide horiek (proiektu eragile berria, Bidelek 2 definitu da Iberdrolarekin eta EEArekin).

Nabarmentzekoa da HARSH-LAB ekimen estrategikoa, offshore ingurunerako produktuen saiakuntzarako eta balioztapenerako azpiegitura. 2018ko maiatzean proiektuaren lehenengo fasea amaituta egongo da, eta osagaien saiakuntza ahalbidetzeko azpiegitura erabilgarri egongo da. 2019ko udaberriari-udari bigarren fasea erabilgarri egongo da. Bigarren fase horrek funtzio osoa eskainiko du saiakuntzetarako eta maniobrak egiteko. Proiektuaren partzuergoan hamar euskal enpresa ari dira parte hartzen, Matz-Erreka buru dela.

C) Elikadura

Elikaduraren esparruan, sailburuak nabarmendu du Euskadik Europako Berrikuntza eta Teknologia Institutua (EIT) buru den Europako 'Food4Future' ekimenean parte hartu duela. 50 enpresak, unibertsitatek eta zentro teknologikok osatutako Europako partzuergo horrek elikagaigintza-sektorea ekoizpenerantz eta elikagai osasuntsu eta iraunkorren kontsumorantz bideratzea bultzatuko du. 2017an Partzuergoak datozen 7 urteetarako agenda estrategiko bat landu du. Agenda horretan, bazkideek gutxi gorabehera 1.200 milioi euro inbertituko dituzte, eta horrez gain Europako Berrikuntza eta Teknologia Institutuak (EIT) beste 400 milioi euro finantzatuko ditu. Lanerako lau arlo nagusi ezarri dira: hezkuntza, berrikuntza, negozioen sorrera eta komunikazioa.

Bizkaiko Teknologia Parkea partzuergoaren hegoaldeko nodoaren egoitzetako bat izango da. AZTI zentro teknologikoa buru den 'EIT Food CLC South' da nodo hori. EIT Food Basque nodoan Angulas Aguinaga enpresak ere parte hartzen du. Zamudioko egoitzak enpresen sorreran eta sektoreko berrikuntzan laguntza emateko hainbat jardura antolatuko du.

Euskadik jasoko dituen onuren artean daude elikaduraren eta gastronomiaren arloko inbertsioen eta start-upen erakarpina, euskal enpresek EIT Food programen deialdi murriztuetan parte hartzea, teknologia eta garapen berriak eskuratzea, nazioarteko ekitaldiak egitea eta abar.

Jon Darpon: Bio-Osasuna

Jon Darpon sailburuak ZTBP 2020k biozientzia-osasuna arloan ekarriko dituen aurrerabide nagusien berri eman du: 48 I+G proiektu onestea sailaren 2017ko deialdietan, 4 milioi euroko aurrekontuarekin, eta euskal osasun-sistemak Bioef+Kronikgune, Biodonostia, Biocruces eta Bioarabaren bitartez garatutako ikerketa-jardura.

Jarraian osasun-sistemarentzat 2018rako markatutako helburuak azaldu ditu. Helburu hauek dira, besteak beste: Osakidetzako I+G arloko gastuak kuantifikatzea, ikerketa kooperatiboko proiektuak gehitzea, sarean lan egitea eta Osasun Ikerkuntzako Institutuek funtsak atzitzea, bereziki kanpokoak, eta erosketa publiko berritzailea gehiago erabiltzea.

Jarraian, Euskal Osasun Sistemak enpresa-garapena eta berrikuntza bultzatu ahal izatea xede duten bi ekimen estrategikoetan izandako aurrerabideak aurkeztu ditu. Alde batetik, Osakidetzaren Erosketa Publiko Berritzaileko Bulegoak bere jardura egiten jarraitzen du, 6 erroka argitaratu ditu eta enpresekin 3 elkarrizketa tekniko abian jarri ditu. Lan horren emaitza gisa, pazientearen esperientzia ardatz duen larrialdietako prozesuaren kudeaketaren hobekuntza lizitatu da.

INNOSASUN programari dagokionez, 83 euskal erakundek 209 laguntza-ekintza eskatu dituzte. Erakunde horietatik 58 enpresak dira, eta tartean osasun arloko 300 profesional egon dira. Emaitza gisa, 12 enpresak euren produktu-zorroa hobetu dute, eta beste 21ek merkatutarako orientazioa hobetu dute.

Iñaki Arriola: Ekosistemak eta Hiri-habitata

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuak Ekosistemen eta Hiri-habitataren pilotaje taldeen aurrerabideak aurkeztu ditu.

A) Ekosistemak

Sailburuak I+G+b-n laguntzeko Sailak 2017an Ihoberen bitartez ateratako programak azaldu ditu. Programa horiek dakartzaten laguntzen bolumena guztira 2,2 milioi eurotik gorakoa izango da, 2016ko 1,48 milioiekin alderatuta. Ekoberrikuntzako, Frogaketako eta Ekodiseinuko proiektuak nabarmentzen dira. Proiektu horien eskariak ia-ia 6 milioi euroko aurrekontua izan du guztira, aurkeztutako 44 proiektuetan mobilizatua.

Jarraian 'Basque Circular Innovation Factory' izeneko ekimen estrategikoa azaldu du. Ekimen horren asmo nagusia ezagutzaren zaintza, garapen eta transferentziako sistema eragilea edukitzea da, Euskadin karbono gutxiko ekonomia zirkular bateranzko trantsizioa bultzatzeko. Hori lortzeko, sektoreko berrikuntzaren eragile nagusiei parte harraraziko zaie eta industria-sektorearentzako gaitasun bereizgarriak garatuko dira; horretarako, kluster elkarrekin eta fabrikazio aurreratuko eta energiako pilotaje taldearekin elkarlanean arituko da.

Basque Circular Innovation Factory-aren barruan, 2017an ekonomia zirkularraren arloko lehenengo proiektu industrial eragilea identifikatu da, REQUIPLAST. Petronor buru den proiektu horrek birfindegia erabiliko du mekanikoki birziklatu ez diren hondakin plastikoak kudeatzeko tresna gisa; hala, enpresentzat negozio-aukera berriak sortzen lagunduko du.

Ekimenaren hurrengo urrats hauek nabarmendu ditu sailburuak: 2018an ingurumen-zaintza lehiakorreko behatokia aterako da, eta 2019an adituen eta hainbat enpresa-talderen nazioarteko panel bat ezarriko da. Haiek guztiek laguntza emango dute ekonomia zirkularraren arloko negozio-aukera berriak identifikatzen.

B) Hiri-habitata

Sailburuak nZEB ekimen estrategikoa azaldu du. Ekimen hori eraikinak energia-kontsumo ia nuluen irizpideekin modu adimentsuan birgaitzearen ingurukoa da. Jaurlaritzaren etxebizitzaren artean dauden eraikin batzuetan erakusketa moduko hiru proiektu pilotu atera dira, Amurrion, Ortuellan eta Donostian. Hiru kasuetan, kasu errealei aplikatutako I+G egin nahi da. Horretarako, ekarpenak egiten dituzte UPV-EHUren Arkitektura Eskolak, Zentro Teknologikoek, Eraikunek, Habic-ek, Alokabidek eta sektoreko beste eragile batzuek.

Jarraian, Hiri-habitataren pilotaje taldearen ikuspegi estrategiko berria azaldu du. Ikuspegi horren ardatza, hiri-agenda baten barruan eraikinen birgaitzetatik auzoen hiri-berroneratze osora eboluzionatzea da. Helburua da erantzuna ematea Euskadiko hiri-habitataren gizarte, ekonomia eta ingurumen arazo nagusiei (eta premia arazoiei); hona hemen arazo horiek: langabezia, zahartzea eta mendekotasuna, higiezin adina, eta abar.

Esparru horretan, lantaldeak 3 ardatzen inguruan berrantolatuko dira gizarte, ekonomia eta ingurumen arloetan, eta beste pilotaje talde batzuekin sinergiak bilatuko dira. Aldi berean, ikuspegi integralarekin auzoak berroneratzeko proiektu pilotuak landuko dira. Zaurgarritasun handia edo oso

handia duten euskal udalerriak identifikatu ostean, lehenengo fasean Sestaon, Gasteizen, Donostian, Durangon, Bilbon, Irunen eta Zumarragan egin beharreko proiektuak ezarri dira.

5. Ikerketa zientifikoa eta unibertsitatekoa

A) Unibertsitatea – Enpresa estrategia. Cristina Uriarte:

Hezkuntzako sailburu Cristina Uriartek Unibertsitatea – Enpresa estrategian izandako aurrerabideak aurkeztu ditu. Aurrerabide horiei esker, Euskadin lan-munduaren eta Goi Mailako Hezkuntzaren artean lotura estuagoak ezartzen ari dira. Estrategia horren bi helburu handiak honako hauek dira: enpresei zientzia-ezagutza transferitzea eta gaitasun handiko eta enpresen beharri zientziari egokituak giza-kapitala trebatzea.

2 helburu horiek lortzeko, 2022ra arte egin beharreko 15 ekintza planteatzen dira. Aurrerabide hauek nabarmendu ditu: 1) strategiaren hedapena; 2) fakultate eta eskolen klusterizazioa; 3) unibertsitatea-enpresa aipamenak; 5) Unibertsitatea-LH elkarlaneko euskal esparrua; 6) titulazioak onartu eta abian jartzea; 10) eragileen arteko elkarlanerako akordioak; 11) programen eta deialdien egokitzapena; 13) unibertsitatea-enpresa harremana zabaltzea eta 15) Enplegu Plan Estrategikoko laguntzak.

4Gune Kluster berriari buruz (Euskadiko ingeniariak, zientzia eta teknologiako unibertsitate-prestakuntzako klusterra), ezarritako 3 helburu orokorrak azaldu ditu sailburuak. Enpresen beharri zientziari identifikatzearekin, profesionalak prestatzearekin eta aliantzak ezartzearekin lotutako helburuak dira. Gainera, 2017ko aurrerabide nagusiak azaldu ditu: fabrikazio aurreratuko pilotaje taldearekin elkarriketa iraunkorra ezartzea, gaitasunak identifikatzea, unibertsitate-enpresa-gizartea elkarlaneko eremuak garatzea, elkarlaneko 4gune.eus plataforma ateratzea eta fabrikazio aurreratuko funtsezko ekitaldietan parte hartzea.

Jarraian, Ikerbasque egindako Euskadiko Zientziaren Maparen garapeneko aurrerabideak azaldu ditu. **“Science.eus”** ataria erabiliz egindako mapa horrek 2. fasean ikerketa-taldeen informazioa izan du, eta aktibo zientifikoak RIS3 Euskadi lehentasunekin lerrokatu dira. Maparen helburua da ikertzaile-taldeen arteko sinergiak gehitzea eta eremu akademikoaren eta ekonomia- eta gizarte-ehunaren arteko lotura erraztea.

Azkenik, sailburuak High Performance Computing-en izandako aurrerabideak azaldu ditu. DIPC BERC zentroan dagoen super konputazioko nodo horren helburua BERC zentroetan eta Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateetan bikaintasuneko oinarritzko ikerketarako gaitasunak indartzea da, RIS3 Euskadirekin lerrokatuta. Zentroa jarduteko prest egongo da erabat 2020an.

B) Ikerbasqueren 2018-2021eko Plan Estrategikoa. Fernando Cossío

Gogoeta estrategikoko parte-hartze prozesuaren emaitza gisa, Fernandok Euskadirentzat 8 indar-idea eta 12 erronka nabarmendu ditu. Horiek Ikerbasqueren 2018-2021 epealdiko Plan Estrategikoaren aurkezpenaren atariko dira. Planaren xede nagusia honako hau da: *“Euskadin zientzia sendotzea, ikertzaileak erakarriz eta mantenduz eta ikerkuntza dinamizatuz, ikerketazentroekin eta unibertsitateekin elkarlanean eta bikaintasun konpromisoarekin”*.

Jarraian, Planean hiru esparru handiren inguruan markatutako 6 helburu estrategiko handiak azaldu ditu. Hona hemen hiru esparru horiek: Talentua, Bikaintasuna eta Zientziari eman beharreko laguntza.

a) Talentua: 1. Zientziaren Euskal Sistema indartzea, ikertzaile seniorrak txertatuz; 2. Finkatutako ikertzaileen karrera zientifikoa osatzea; 3. Etorkizuneko buru zientifikoen harrobia sustatzea; 4. Ikerbasque komunitate zientifiko konektatua eta produktiboa sustatzea.

b) Kudeaketa bikaina: 5. Kudeaketa bikaina, irekia eta konprometitua bultzatzea.

c) Euskal Zientzia Sistemari laguntzea: 6. Euskal Zientzia Sistemari laguntzea bere helburuak lortzen.

Azkenik, Ikerbasquek ezarrita dauden helburu estrategikoak lortzeko xedatutako jarduketa-ildoak azaldu ditu Fernando Cossíok. Ildo horiez gain, helburuak noraino bete diren azaltzen duten adierazleak eta kalkulaturako aurrekontu-baliabideak aipatu ditu. Azken horiek ia-ia 110 milioi euro dira 2018-2021 epealdirako.

6. Euskal Partzuergo Teknologiko bat sortzea: Arantza Tapia

Sailburuak azaldu du zein aurrekarik bultzatuta sortu zuen bere sailak Euskal Partzuergo Teknologiko berria. Aurrekari horiek aurreko legegintzaldian hasitako aldaketa-prozesuarekin lotu ditu; hain zuzen ere, orduan, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko eragileen mapa berrantolatzeke lehenengo fasea egin zen. Zentro Teknologikoen eta CIC zentroek aurrerabide oso positiboa izan dute 2014 eta 2016 bitartean. Aurrerabide hori Emaitek plus programako adierazle eboluzioaren bitartez neurtu da (+16 p.p. Zentro Teknologikoetan eta + 7 p.p. CIC zentroetan). Gainera, zentro guztietarako kudeaketako oinarri batzuk finkatu dira, euren helburu operatiboak lerrokatzeari esker.

Aurreko aurrerabide horietatik abiatuta, eta identifikatu diren hobekuntza-elementuak kontuan hartuta, bere ustez 2. faseari ekiteko une egokian gaude. Fase horretan, eragile teknologiko guztiak erakunde bakar baten babespean bildu ahalko dira. Partzuergo berriaren helburu nagusietako batzuk honako hauek dira: eskaintza zientifiko-teknologiko koordinatua eskaintzea, herriaren erronkekin bat datorren ikerketako baterako agenda bat definitzea, partzuergoa osatzen duten eragileen artean benetako elkarlaneko dinamikak eta sinergia-bilaketa bultzatzea, eta munduan euskal zientzia eta teknologiaren arloko marka bateratu bat proiektatzea. Partzuergo berria 2018ko maiatz aldera aterako da, eta bere integrazio-mailei dagokienez apurkako bilakaera izango du, 2020an prozesua burutu arte.

Erakunde berrian sartu ahalko dira CIC zentroak (bioGUNE, biomaGUNE, energiGUNE eta nanoGUNE), Foku Anitzeko Teknologia Zentroak (Tecnalia eta 9 IK4 zentroak) eta Azti eta Neiker Teknologia Zentro sektorialak, hau da, guztira 16 erakunde, Eusko Jaurlaritzaren oinarritzko

finantzaketa dutenak, guztira 3.590 pertsona eta 265 milioi euroko diru-sarrerak. Erakunde bakoitzak Euskal Partzuergo Teknologikoarekin askatasunez egingo du bat, eta bat eginez gero, partzuergoa eratzean ezartzen diren eskubide eta betebeharrak hartuko dira.

7. Hedapenaren 3. fasea eta 2018ko aurrekontuak.

Jarraian, Lehendakariak Jesús Peñari eman dio hitza, eta hark RIS3 estrategiaren hedapenaren faseari lotutako aurrekontu-egoera berria azaldu du.

Jesús Peñak, hasteko, gogora ekarri du Jaurlaritzaren konpromisoa: urtean % 5 handitzea I+G+b-ko programen aurrekontuak, oraingo legegintzaldian (2017-2020) 1.770 milioi euro inbertitzeko helburuarekin. Konpromiso hori Eusko Jaurlaritzaren 2017ko eta 2018ko ekitaldietako aurrekontuetan azaldu da. Aurrekontu horietan hurrenez hurren 411 milioiko eta 433 milioiko aurrekontua aurreikusten da.

Lehendakaritzaren Berrikuntza Funtza izango da aurrerantzean ere Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluak ZTBP hedatzeko 3. fasean ezarritako erronkak indartu ahal izateko tresna. Hala, diru-kopuru hauek erabiliko dira: 1) 1,2 milioi pilotaje taldeak dinamizatzeko; 2) 12,6 milioi proiektu estrategikoak eta zeharkako proiektuak bultzatzeko; 3) 12,8 milioi merkatuaren eta sistemaren arteko hurbiltasuna indartzeko; 4) 6,1 milioi RIS3 arloetako bikaintasuneko oinarrizko ikerketa indartzeko; 5) 2,5 milioi talentu gaztea eta STEM (zientzia, teknologia, ingeniari eta matematikak) bokazio berriak sustatzeko, eta 6) 1,1 milioi gizarte-sentsibilitatea eta enpresa-berrikuntza handitzeko.

Azkenik, Jesús Peñak gogora ekarri du ZTBPrek jarraipenerako aginte-taularen adierazle nagusien egoera. Adierazle horien ebaluazioari esker, erronka berriak definitzen ari dira eta dinamizaziorako neurri eta jarduketak ezartzen ari dira.

8. Laburpena eta ondorioak

Gai-zerrendako azken puntuari ekin aurretik, Lehendakariak ZTBPrek hedapenean garatutako faseen laburpena egin du.

“2014ko abenduan Kontseilu honek ZTBP Euskadi 2020 onetsi zuen. Hala, espezializazio adimentsuko estrategia baten aldeko apustua egin zen, ongizatea, hazkunde ekonomiko iraunkorra eta enplegua hobetzen laguntzeko.

2015ean, eta Kontseilu honek gainbegiratuta, Planaren ezarpenaren 1. fasea garatu zen. Fase horretan gobernantza-organoak konfiguratu ziren, 7 pilotaje taldeak sortu ziren eta etorkizuneko arlo teknologikoak definitu ziren espezializazio-esparru bakoitzaren barruan.

2016an Planaren hedapenaren 2. fasea garatu zen, pilotaje taldeetatik sortutako lantaldeen bitartez. Proiektu eragile eta ekimen estrategiko berriak identifikatzen hasi ziren, euskal ekonomikaren sektore batzuk eta besteak eraldatzeko eta bultzatzeko helburuarekin.

Aurten, 2017an, dinamizazioko 3. fasea hasi da. Fase horretan, hainbat erronka dago; besteak beste, berrikuntzaren onurak gizarteari eta enpresei eramaten ari zaizkio, ETE-etan arreta berezia jarrita.

“Kontseilu honen aurreko bileraren amaieran esan genuenez, berretsi egiten dugu berrikuntza dela gure orainaren arrazoia eta gure etorkizunaren giltza”.

Jarraian, Lehendakariak, bileraren laburpen gisa, Kontseiluari honako ondorio konpartitu hauek aurkeztu dizkio, kontuan har ditzan:

Lehenengoa: ZTBP 2020ren hedapenaren hirugarren faseak 2017an izan duen bilakaerari buruz balorazio positiboa egitea eta iragan ekainaren 28ko bileran planteatutako sei erronka berriak baliozkoak eta egokiak direla berrestea. Horren haritik, nabarmentzekoa da pilotaje taldeek Innobasqueren babesarekin betetzen duten zeregina, elkarlaneko proiektu eragileak identifikatzeko eta euren aurrerabide eta emaitzak Euskadiko enpresa txiki eta ertainei jakinarazteko.

Bigarrena: Pilotaje taldeei eskatzea zeharkako ekimen estrategikoak sakonago gara ditzatela, hala euskal enpresak errazago jabetuko baitira euren lehiakortasuna hobetzeko beharrezko ezagutzaz eta I+G+b-ko azpiegiturez.

Hirugarrena: Unibertsitateko Euskal Zientzia Sistema animatzea RIS3 Euskadi estrategiarekin nahiz Europako estrategiarekin bat egiten jarraitzea, Unibertsitatea – Enpresa Estrategia garatuz. Hori guztia, Euskadiren garapen ekonomiko iraunkorrean egiten duten ekarpena handitzeko helburuz.

Laugarrena: Ikerbasqueren 2021eko Plan Estrategikoaren aldeko txostena egitea. Bereziki baloratzen da erakunde horrek Euskadiko Zientzia Sistema indartzen betetzen duen zeregina, RIS3 Euskadi estrategian egiten duen ekarpena, ikerketa arloko talentu gazte berria erakarriz.

Bosgarrena: Herri mailako helburu eta estrategiekin bat datorren euskal partzuergo teknologiko berri bat sortzeko ekimenari buruz balorazio positiboa egitea. Partzuergo horrek euskal eskaintza zientifiko eta teknologikoa koordinatuko du, partzuergoa osatzen duten erakundeen arteko elkarlan eraginkorragoa garatuko du, dauden sinergiak aprobetxatuko ditu eta Euskadik nazioartean duen marka eta posizioa hobetuko du.

Seigarrena: Onartzea 2017an Jaurlaritzak aurrekontu aldetik egindako ahalegina, baita legegintzaldi honetan I+G+b-ri laguntzeko programen zuzkidura urtean % 5 handitzeko hartutako konpromisoa. Era berean, Euskadiko gainerako eragile publiko eta pribatuei eskatzea ikerketa eta berrikuntza arloan egiten dituzten inbertsioak handitu ditzatela, baterako helburu batekin, hau da, ZTBP 2020 jomuga izanik, I+G+b arloan guztira 11.000 milioi euroko inbertsioa metatzea.

9. Eskaerak eta galderak.

Kontseiluan egindako hitzaldien laburpen gisa, besteak beste honako hauek aipatu ahal dira: Jakiundeko presidentek iradoki duenez, hondakin plastikoen kudeaketarako REQUIPLAST ekonomia zirkularreko proiektu eragilean egokia litzateke Polymat BERC zentroa edukitzea. Eta honako hau ere iradoki du: jarduketa federatu bat egin beharko da, berrikuntzaren aldeko gizarte- eta enpresa-sentsibiltatea handitzeko.

EHUko errektoreak, bere aldetik, Bilbon EIT-Food nodoarekin elkarlanean aritzeko irekitako aukerei buruzko interesa azaldu du.

Azkenik, TECNALIA Korporazioaren ordezkariak zorionak eman ditu RIS 3 Euskadi estrategia garatzeagatik.

Aztartzeko beste gairik ez dagoela, bilera 19:00etan amaitu da.

Jesús Peña Martínez

LEHENDAKARITZAREN IDAZKARI NAGUSIA ETA LEHENDAKARIAREN ORDEZKARIA ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA PLANERAKO

(*) Informazioa eskuragarri dago ZTBPre Webgunean: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/ztbp-2020/>